

## **2007KO ABENDUAREN 11N GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:**Hamaika

**HILABETEA:** Abendua

**URTEA:** Bi mila eta zazpi

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatziak

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Bost (5)

**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza

**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEA:** Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2007ko azaroaren 13ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

### **2.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZARI BURUZKO KONTRATUA LUZATZEA.**

Gizarte-ongizate batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik.** Etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko, GOXARA S.L. enpresarekin, Beasaingo Udalak duen kontratua luzatzea, iraupena 2008ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31 bitarte izango delarik.

**Bigarren.** Beasaingo Udalak GOXARA, S.L. enpresari aipatutako zerbitzua emategatik egun ordaintzen dion diru kopuruari, 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera 2007. urteko KPI aplikatuko dio.”

### **3.- HAINBAT INFORMAZIO**

VISESArekin HITZARMENA

Ezagutzera eman da Visesarekin sinatzea proposatzen den hitzarmena, Hunolt 31 Arean babes ofizialeko etxebizitzak egiteko.

Fernando Boada jaunak gai honi buruz esan du beraiek lehen bezala pentsatzen jarraitzen dutela.

#### INDAREkin HITZARMENA

Ezagutzera eman da INDAREkin sinatzea proposatzen den hitzarmena.

Alkateak esan du, langileek interes handia dutela eta prentsari eskatuko liokeela albiste honen ganean diskrezioa izatea, langilen lanean eragin izan dezakeelako.

Fernando Boada jaunak, pSE-EE/PSOeko ordezkariak esan du, legez kanpo jokatzeko bada salatu egingo dela.

Alkateak erantzun dio esanez, kontuan izan beharko liratekeela sortu daitezkeen zeharkako ondorioak.

#### KALE HEZITZAILEAK

Ezagutzera eman da, hurrengo Udalbatza Osoan kale hezitzaileak kontratatzeko eramango den erabaki-proposamena, hain zuzen ere, Lorratz Giza elkarteari esleitzearena, lizitatuak bakarrik izan delako.

Aldi berean, "Goierriko Sahararen lagunak" elkartearen udalaren interesekoa dela aitortzea, Udalbatza Osoan ere tratatuko da.

#### LIZITAZIOAK

Ezagutzera eman da, Igartza Jauregia kontsolidatzeko eta Arriarango Intxaurpe elkartearen handitzeko obraren lizitazioak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirela eta oraindik ez dela amaitu eskaintzak aurkezteko epea.

#### LAN EGUTEGIAK

Ezagutzera eman da, pertsonalaren lan-egutegiak lantzen ari direla.

#### LANGILEEKIN BAZKARIA

Ezagutzera eman da, abenduaren 21ean urtero bezala langileekin bazkaria egingo dela eta aurten erretiratu den langile bati omenalditxo egingo zaiola. Zinegotzi guztiak gonbidatuta daude.

## INAUGURAZIOA

Igartza inguruan dagoen 1etik 100 urte bitarteko parkea inauguratu egin behar da. Inaugurazioa gizarte-ongizate batzordetik bideratuko da eta inaugurazioan ere erretiratuen etxeko kideak parte hartuko dute. Fisioterapeuta bat ere etorriko da irakasteko nola erabili.

## KONTZERTUAK

Gaur eta bihar elizan, herri desberdinetako jubilatuek emandako kontzertuak egongo dira.

## HAUR PARKEA

Abenduaren 26tik 30era, Antzizar kiroldegian, haur parkea jarriko da.

## LIBURU AZOKA

Abenduaren 14, 15 eta 16, azken urteotan bezala liburu azoka egingo da. Euskera batzordeak, "Mirentxu liburudenda"ren laguntzarekin antolatu du.

## IDAZLEHIAKETA

Abenduaren 14an, idazlehiaketarako lanak aurkezteko epea amaitzen da.

## GORPUEN DESEHORZKETA

Interesa duten 80 pertsona etorri dira. Porzentai gehiena erre edo pilatu egiten da.

## GABONETAKO ARGIAK

Instalazioak energiak baino kostu handiagoa du. Hamar puntu kendu dira eta horietan ez da gabonetako argirik jarriko.

## INDARera DOAN BIDEA

Tren bidearen gainera Indar-era doan bidean argiak jarri dira.

#### BARANDIARAN PARKEA

Balustradak aldatu egingo dira parke honetan.

#### SMS

Hedatzen ari den ohitura da, deialdiak SMSren bidez jasotzea eta hemen ere ezartzeko ahalegina egingo da.

#### NOMINARI buruzko APLIKAZIOA

Gipuzkoa mailan nominari buruzko aplikazio berria ezarri behar da. Beasaingo udala izango da, lehenetarikoa martxan jartzen. Agian hasieran konpondu daitezkeen arazoak izango dira.

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderan atalean ondorengoak aipatu dira:

Oriamedia kalean abiadura moteldu beharra eta kale horretan bertan, zati batean zoladurak duen egoera txarra.

Une honetan Fernando Boada jauna bileratik atera da eta Alkateak gonbitea luzatuta, bilerara sartu da, Fernando Martinez Hinojal, ORUBIDeko Zuzendari Orokorra. Berarekin, VISESarekin sinatzea proposatzen den hitzarmena landu da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera 10,20etan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.